



BShko lantokiko sarbidea itxi dute langileek euren enpleguen defentsan

AGENTZIAK/LA HAINE :: 19/03/2025

Foruzaingoak erreprimitu egin ditu, eta ez die utzi protestarekin jarraitzea.

Kamioiak ez sartu ez atera. Horrela eman dute goiza BShko Eskirozko lantokian. Parez-pare langileak aurkitu dituzte protestan. Hilkutxa batekin, elkarretaratze formatuan lehenbizi eta Foruzaingoak esku hartu behar zuela jakin dutenean eserialdia egin dute erresistentzia pasiboa erakutsiz. "Zuzendaritzak jarritako betoarekin segitzen dugu eta bileretan parte aktibo izatea ezinbestekoa da guretzat", adierazi dute. Era berean, enpresaren erantzuna aldatzen ez bada, ekintza zuzenekin jarraituko dutela ziurtatu dute langileek.

Etxetresnak egiten dituen BSH taldeak Eskiroz (Nafarroa) duen **lantegia ixteko asmoa** iragarri zuen pasaden urteko abenduan, "lehiakor izateari utzi" diola argudiatuta. Albistearen jaso eta egun gutxira **milaka pertsona atera ziren kalera Iruñean**, BShk Eskiroz duen lantegiaren itxiera salatze eta 660 langilek osatzen duten lantaldeari babesa emateko.

(Irudia:Navarra Television)

<https://eh.lahaine.org/bshko-lantokiko-sarbidea-itxi-dute>